

OPOSIZIOGILEA**ZK.****0****NOTA: 0,0000**

TXANTILLOIA

OPOSIZIOGILEAREN
PUNTUAZIOA**LEHEN KASU PRAKTIKOA****0,0000**

1. Adierazi eta garatu gizarte-larrialdietako koordinazio-zerbitzuak egin beharreko jarduerak, kontuan harturik zer ezarrita dagoen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 2.6 fitxan (Gizarte-larrialdietako koordinazio-zerbitzua). Azaldutako gertakariak bakarrik kontuan hartu; ez dira baloratuko kasu honetan kontuan hartu ez diren hipotesiak. (3 PUNTU)			
Urgentziazko lehen arreta:		0,55 PUNTU	0,0000
1. Urgentziazko lehen arreta premien behin-behineko balioespena egitean datza, ondorengo balioespenarekin lotuta egongo dena. 0,20 puntu			
2. Premien hasierako balioespena			
2.1 Genero-indarkeriako egoera. 0,10 puntu			
2.2 Indarkeriaren biktima adingabea. / Babesik gabe geratzeko arriskuan dagoen adingabea. 0,10 puntu			
2.3 Gizarte-isolamendua. 0,05 puntu			
2.4 Mendekotasun ekonomikoa. 0,05 puntu			
2.5 Etxebizitza desegokia. 0,05 puntu			
Balorazio hau garatzeko, hauek egin beharko dira:		2,45 PUNTU	0,0000
1. Familiako etxebizitzara joan, egoerari in situ erantzuteko. 0,35 puntu			
2. Maria eta Olatz babesteari dagokionez, premia-egoerak in situ antzeman. 0,35 puntu			
3. Mariari eta Olatzi osasun-zentrora laguntzea eskaini. 0,35 puntu			
4. Mariari polizia-bulegoetara laguntzea eskaini, dagokion salaketa jartzeko. 0,35 puntu			
5. Berehalako harrera-zerbitzua eskaini etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeei. 0,35 puntu			
6. Emozioei eusteko saioa egin Mariarekin eta Olatzekin. 0,35 puntu			
7. Egindako jarduketak Umeen Zerbitzura, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzura, Fiskaltzara eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara bideratuko direla jakinarazi. 0,35 puntu			

2. Azaldu gizarte-larrialdietako koordinazio-zerbitzuko gizarte-langileak nola bermatu behar duen autodeterminazio-printzipioa aurreko galderan definitu dituzun jarduketetan, Mariari dagokionez. (2 PUNTU)			
AUTODETERMINAZIO-PRINTZIPIOA GAUZATUTAKO JARDUKETETAN BERMATZEA		2 PUNTOS	0,0000
1. Mariari eta Olatzi osasun-zentrora laguntzea eskaini. Alabarekin osasun-zentrora joateko zein ez joateko Mariak hartutako erabakia errespetatu eta joatearen onurak eta ez joatearen ondorioak azaldu. 0,25 puntu			
2. Mariari polizia-bulegoetara laguntzea eskaini, dagokion salaketa jartzeko. Salaketa jartzeko zein ez jartzeko Mariak hartutako erabakia errespetatu eta ez jarteak berari eta alabari ekarriko dizkion ondorioak azaldu. 0,25 puntu			
3. Berehalako harrera-zerbitzua eskaini etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeei. Berehalako harrera-zerbitzu batera joateko zein ez joateko Mariak hartutako erabakia errespetatu. 0,25 puntu			
4. Emozioei eusteko saioa egin Mariarekin eta Olatzekin. Bere egoera pertsonalaz, bere egoera emozionalaz, alabaren egoera emozionalaz, bere kezkez eta bere bizi-ibilbideaz hitz egiteko zein ez egiteko Mariak hartutako erabakia errespetatu. 0,25 puntu			
5. Informazioa eman erabakiak hartzea errazteko eta horien ondorioen berri emateko. 0,20 puntu			
6. Mariak bere bizitzarekiko hartzen dituen erabakiak errespetatu. 0,20 puntu			
7. Erabakiak hartzeko laguntza eskaini. 0,20 puntu			
8. Mariarekin objektiboki aztertu zer egoeratan dagoen. 0,20 puntu			
9. Proposatutako jardueretik Mariak hartzen dituen erabakiak errespetatu. 0,20 puntu			

BIGARREN KASU PRAKTIKOA

0,0000

1. <u>Adierazi</u> Ramonek dituen 5 ahulezia. (0,35 PUNTU)	0,35 PUNTU	0,0000
Behean zerrendatutako erantzun baliodun bakoitzeko, 0,07 puntu; gehienez 5 erantzun.		
Lotura afektiboen gabezia		
Laguntza-sare primarioarik eza		
Laguntza-sare sekundarioarik/komunitarioarik eza		
Substantzia toxikoen kontsumoa		
Ondoez emozionala, bakardade-sentimenduak		
Partaidetza sozialik eza, isolamendu soziala/integrazio komunitario apaleko taldeetako kide izatea		
Eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretarako laguntza eta gainbegiratzea behar izatea		
Lotura afektiboak ezartzeko/mantentzeko trebetasunetan zailtasuna izatea		
Norbere burua zaintzeko zailtasunak (higienea, elikadura, jantziak)		
Bizilekurik eza		
Prekarietate ekonomikoa		
Tratamenduekiko atxikidura txikia		
Kale-ibilbideen kronikotasuna		
Ez du onartuta mendekotasuna		
Patologia fisiko ugari		

2. <u>Adierazi</u> Ramonek dituen 5 indargune. (0,35 PUNTU)	0,35 PUNTU	0,0000
Behean zerrendatutako erantzun baliodun bakoitzeko, 0,07 puntu; gehienez 5 erantzun.		
Egoeraren kontzientzia		
(Bere egoera) aldatzeko motibazioa		
Laguntza profesionaleko harremanaren onarpena		
Bizikidetzaren egokia izateko trebetasunak		
Kontsumoak murrizteko motibazioa		
Egoera erregularizatua (errolatzea)		
Kotizazio gabeko pentsioa jasotzea.		
Desgaitasun-egoera aitortua (bere eskubideak baliaz ditzake)		
Gizarte bazterkeriaren egoera aitortuta izatea		
Erakunde-sareen laguntza		

3. <u>Adierazi</u> esku-hartzean lehentasunezkoak diren 3 helburu orokor. (0,75 PUNTU)	0,75 PUNTU	0,0000
Behean zerrendatutako erantzun baliodun bakoitzeko, 0,25 puntu; gehienez 3 erantzun.		
Osasunaren zaintza sustatzea		
Bizilekua bilatzea, eguneroko bizitza egituratzeko aukera izateari begira (ohitura eta errutina osasungarriak)		
Lotura afektibo positiboak/gizarte-harremanak/laguntza-sareak sortzea		
Sare primario ez-familiarren sorrera ahalbidetzen duten testuinguruetan/jardueretan parte hartzea bultzatzea		
Erabiltzaileak gizarteratze-prozesuan parte har dezala sustatzea		

4. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 21eko 59/2019 Foru Dekretuan, zeinaren bidez arautzen baita gizarte-inklusioaren arloan esku hartzeko prozedura espezializatua, adierazi eta arrazoitu honako hauek: (2,35 PUNTU)		
- Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuaren zein programa eskaini behar zaion Ramoni (1,35 PUNTU)		
- Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuaren zein zerbitzu eskaini behar zai(zki)on Ramoni (1 PUNTU)		
Zein programa eskaini behar zaion Ramoni	1,35 PUNTU	0,0000
Egonaldi luzeko programa: 0,35 puntu		
▪ Ez da aurreikusten Ramon bizitza autonomoan hasia laguntza espezializaturik gabe. 0,20 puntu		
▪ Egoera kronifikatuan dauden pertsonen prozesuetarako laguntza behar du. 0,20 puntu		
▪ Denbora-mugarik gabe. 0,20 puntu		
▪ Autonomia pertsonalaren nariadura saihestea. 0,20 puntu		
▪ Ramonen premiei erantzutea eta, beharrezkoa bada, bere kabuz bete ezin dituen premietan Ramon ordeztzea. 0,20 puntu		
Zerbitzuaren zein zerbitzu eskaini behar zai(zki)on Ramoni	1 PUNTU	0,0000
Gizarteratzeko zerbitzua edo eguneko zentroa. 0,10 puntu		
▪ Erreferentziako esparru fisiko horretatik bideratuko da erabiltzailearekiko esku-hartzea. Balio anitzeko hainbat prestazio eskaintzen ditu, gizarteratze-ibilbidean laguntza indibidualizatua bermatzeko. 0,40 puntu		
Gizarteratze-prozesuei laguntzeko egoitza-zerbitzua. 0,10 puntu		
▪ Eguneko zerbitzutik emandako arretaren izaera osagarria. Arreta ematen da zeren Ramonek testuinguru egituratua eta egituratzailea behar baitu, gabezia pertsonalak eta harremanezkoak dituelako. 0,40 puntu		

5. Proposatutako zerbitzua edo zerbitzuak eskuratu ahal izateko, adierazi zer premia-baldintza espezifikoa bete behar dituen Ramonek, kontuan harturik zer ezarrita dagoen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan (1,20 PUNTU)		
PREMIA-BALDINTZA ESPEZIFIKOAK	1,20 PUNTU	0,0000
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zerbitzua		
- Intentsitate ertain edo handiko babesa behar izatea gizarteratze-ibilbidea egiteko. 0,10 puntu		
- Gizarteratze-ibilbide bat egiteko konpromisoa hartzea. 0,10 puntu		
- Bere egoeraz jabetzea eta egoera aldatzeko motibazioa izatea. 0,10 puntu		
- Gizarte-zerbitzuen sareko zuzkidura propioen irismen eta aukeretatik kanpo dagoen osasun-laguntza espezializaturik eta/edo iraunkorrik behar ez izatea. 0,10 puntu		
- Ez uko egitea kasuan-kasuan dagokion tratamenduari, gaixotasun infekzio-kutsakor bat eta/edo gaixotasun mental bat izanez gero. 0,10 puntu		
- Ez izatea jokabidearen nahasmendurik eta/edo portaerarik zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetzaren normala larriki nahas dezakeenik edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeenik. 0,10 puntu		
Bazterketa eta marjinazio egoeran daudenentzako egoitza zentroak		
- Bizikidetzarako gutxienezko gizarte- eta harreman-trebetasunak izatea. 0,10 puntu		
- Gizarteratze-ibilbide bat egiteko konpromisoa hartzea. 0,10 puntu		
- Arazoaz jakitun egotea eta egoera aldatzeko motibazioa izatea. 0,10 puntu		
- Laguntza-intentsitate ertaina edo handia eskatzea, eskuratu nahi den zerbitzu-modalitatearen arabera. 0,10 puntu		
- Gizarte-zerbitzuen sareko zuzkidura propioen irismen eta aukeretatik kanpo dagoen osasun-laguntza espezializaturik eta/edo iraunkorrik behar ez izatea. 0,10 puntu		
- Ez uko egitea kasuan-kasuan dagokion tratamenduari, gaixotasun infekzio-kutsakor bat eta/edo gaixotasun mental bat izanez gero. 0,10 puntu		

Sin./Fdo.: ARGÑE ALAZNE SARALEGUI PRIETO - 2022-06-01

Epaimahaiko idazkaria
Secretaria del tribunal